



	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Liberazio sindikalen akordioa: delegatu bakoitzak bere kreditutik bi ordu ematen du gure liberatuek erabiltzeko. Ohiko bilerak egiteko, astero goiz edo arratsalde bat erabil daiteke. Sindikatuko goi mailako organo baten izateagatik, beste egun bat gehiago. Behar den bezala programatuta jarduera hezigarrietarako, 3 egun gehiago.</li> <li>➤ Ohiko marku hori legezkoa baino txikiagoa da (Langileen Estatutua). Orokorrean, kredituaren geratzen diren orduak, kasu zehatz desberdinetan eta, sindikatuak ohiko markua gainditu behar duela esaten duenean (mobilizazioak, kongresua) baino lehezkora gainditu gabe, ez dira agortzen behar den moduan.</li> <li>➤ Sindikatuaren agiria behar da eta, ahal bada, 5 egun lehenago eskatu.</li> </ul>
<b>11</b>	<p><b><u>Hobekuntza-ikastaroengatik lizentzia (47.art.).</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Orduak lanalditzat hartuak izango dira (ordainketa eskubidea), ikastetxearen titularrak hori onetsiz gero. Langileak bekaren bat badu, bekaren eta lansariaren arteko aldea ordainduko da bakarrik.</li> <li>➤ Baimena beti emango da IRALEko edo Jaurilaritzak ordainduriko beste ikastaro batzuetara joateko.</li> <li>➤ Eskaintza titularrak berak egiten badu edo langilearekin adostuta bada, ikastaroak sortutako gastuak eskuratzeko eskubidea (joan-etorri, egonaldi, mantenu eta matrikula-gastuak).</li> </ul>
<b>12</b>	<p><b><u>Azterketak egiteko baimena (Lanbide-mailako titulua lortzearen ikasketa ofizialerako) (48.art.).</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Egun 1 azterketa bakoitzerako. 3 egun, 150 km.tik gorako bidea egin behar izanez gero. Beti matrikula egiaztatzea presentatu behar da.</li> </ul>
<b>13</b>	<p><b><u>Lanbide-mailako hobekuntzarako jarduerak egiteko (54 eta 56. art.).</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ikasturte batean eszedentzia hartzeko eskubidea, kobratu gabe baino antzintasun onarpenaz. Ikastetxean bost urtetik gora etengabe lanean ibilitako langilea behar du izan. Lanean berez eta besterik gabe berriro hasteko eskubidea, aintzintasuna kontutan hartuz.</li> <li>➤ Urtea baino gutxiagoko eszedentziarako eskubidea, beka edukitzeagatik, ikasbidaia egiteko edo espezialitateari berariaz dagozkion hobekuntza-ikastaroak egiteko. Antzintasuna zenbatzen da eta akreditatu egin behar da.</li> </ul>
<b>14</b>	<p><b><u>Adin txikiko en. elbarrien edo odolkidetasuneko 2. mailararteko senideen zaintzagatik lanaldi-murrizketa (46. art.).</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Lanaldi eta soldata murrizketa proportzionala 1/8 eta 1/2 en artean.</li> </ul>

<b>15</b>	<p><b><u>Medikuarengana joateko edo osasun-azterketak egiteko baimena. (44. art.).</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Jaioaurreko azterketak, erditzerako prestakuntza...haurdunentzat. (44.e art.)</li> <li>➤ Mediku-kontsultarako: behar-beharrezko denbora, laneko orduen barruan izanez gero. (44.d art.).</li> </ul>
<b>16</b>	<p><b><u>Norberaren eginbeharretarako eta ordaindu gabeko baimena. (45.e art.)</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ 15 egun arte, soldatarik gabe, 5 egun lehenago eskatuz.</li> <li>➤ Berez eta besterik gabe lortzen da, langileen %5a baino gehiago ez badago egoera horretan.</li> </ul>
<b>17</b>	<p><b><u>Borondatezko eszedentzia (52. eta 53. art.).</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Gutxienez lau hilabetetarako eta gehienez bost urterako. Lehenengo bietan, lanpostua gordetzen da.</li> <li>➤ Baldintzak: urtebeteko aintzintasuna eta aurreko lau urteetan hartu ez izana. Idatziz eskatu behar da, bi hilabete aurretik behintzat. Itzultzeko: 3 hilabete lehenago jakinarazi, lanpostua gordetzeko eskubidea mantentzeko.</li> </ul>
<b>18</b>	<p><b><u>Seme-alaben, elbarrien edo odolkidetasuneko 2. mailararteko senideen zaintzagatik eszedentzia (55. art.).</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ 3 urte seme-alaba bakoitzeko, amatasunagatik baimena (edoskitzeagatik bi asteak barne) bukatu ondoren hasita.</li> <li>➤ Ondorengo seme-alabek beste eszedentzia bat hartzeko bidea emango dute.</li> <li>➤ Aitak edo amak eska dezake, eta aintzintasuna kontutan hartzen da.</li> </ul>
<b>19</b>	<p><b><u>Derrigorrezko eszedentzia (50. eta 51. art.).</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Kasuak: kargu publikoren baterako hautatua izanagatik, eginkizun sindikaletan jarduteagatik, gaisotasunagatik behin-behingo elbarritasun-egoera egon bitartean, odol-ahaidetasuneko 2. mailara arteko senideren bat zaintzeko (urtebete gehienez).</li> <li>➤ Lanpostua gordetzeko nahiz aintzintasuna kontutan hartzeko eskubidea emango du.</li> </ul>